

BIDELAGUNA PROGRAMA

BIDELAGUNA bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, eskola-laguntzako programa bat da.

Programa honetan orain dela ikasturte batzuk, sartu ginen eta jarraitzeko arrazoiak honako hauek dira:

- Lehen Hezkuntza amaitzean zenbait ikaslek atzerapen nabaria izaten dute gelaren maila orokorrarekiko. Ikasle hauetako batzuk dagoeneko errepikatu dute behin LHn, edo DBHren lehenengo urtea errepikatzeko arrisku handia dute. Ikasle hauek arazo nabarmenak izaten dituzte lanerako autonomia aldetik eta behar beharrezkoa dute besteek baino denbora gehiago erabiltzea ikasketetarako.
- Beste kasu batzuetan LH gaindituztat emateko, lortu duten maila kontutan izan gabe, beste zenbait faktore begiratzen dira: egoera familiarra, taldean integrazioa... Honek arrunta dena baino aldaketa handiagoa ekartzen die ikasle hauei.
- DBHren 1. mailan eskolaren aurkako jarrera ez da oso arrunta izaten, baina aurreko faktoreek dakarten nolabaiteko porrotak besteekiko atzean geratzea dakar eta aurkako jarrera horiek azaltzea ekar dezake.
- Laguntza honekin curriculumaren zenbait arlotan hobekuntzak izatea nahi da, hobekuntza horiek ikasleen auto-estimaren hobetzea eragingo duelakoan. Ikasle hauek izan dezaketen arazoa areagotzeko, etxekoek ematen dieten laguntza eta babesa oso eskasa da kasu gehienetan. Horregatik, programa honekin bi arlo garatu nahi ditugu: batetik, gurasoek ematen ez dieten laguntza eta jarraipena ikastetxean eman; bestetik, ikasketa-prozesuan guraso horien inplikazioa bultzatu nahi dugu. Kontuan izan behar dugu zenbait ikasleren gurasoen hezkuntza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak oso urriak direla eta, askotan, guraso horien ama hizkuntza gaztelania dela.

Programa honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Eskola-orduetatik kanpo ikasle taldeari orientazio pertsonalizatua eskaintzea.
- Denbora antolatzen lagundu.
- Oinarritzko gaitasunak garatzen lagundu, lanean irmotasunak eta ikas-estrategiek duten garrantzia irakatsiz.
- Irakurketarako ohitura bultzatu.
- Arlo instrumentaletan ezagupenak eta trebeziak sendotu.
- LH eta DBH arteko trantsizioa leuntzen lagundu.
- Ikaslea taldean eta ikastetxean integratzen lagundu.
- Bere aukera akademikoak areagotzeko ikaslearen auto-estima indartu.
- Gurasoek arlo akademikoan izan behar duten inplikazioa bultzatu eta guraso eta ikastetxearen arteko komunikazioa sendotu.

Aurten talde bakarra dugu. Taldearen irakaslea eta arduraduna DBHko PTEa da eta ikasleekin astean 3 saio izaten ditu: astelehen, asteartea eta asteazkenetan 13:15etik 14:10etara. BIDELAGUNAKo irakasleak saio bat du egitasmoaren koordinatzaileekin (Ikasketa Burua eta Orientatzailea) biltzeko eta beste saio bat beraien koordinaziorako eta lana prestatzeko.